

TXIKITTO

2012ko martxoa-apirila

127



**Musika maisu
GAZTEAK**



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ekhi Belar, Koldo Mitxelena
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,
Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kaixo Arrateko Andra Mari ikastetxetik!
Badoa ikasturtea aurrera eta negua bukatzen
ari dela dirudi, laster oporrak eta gu jo ta ke la-
nean, noiz iritsiko diren zain.

Oraingoan ere gauza pila bat egin dugu: 6. mai-
lakoak inguruak aztertzen ibili dira "Mugikor-
tasun jasangarria" lantzen; 3. eta 4. mailakoak
Deba goiena ikusten eta ikasten txangoa egin
zuten bere proiektuaren barruan eta oso gauza
interesgarriak kontatu dizkigute. Eskolako txi-
kienak oso proiektu politan egon dira murgil-
duta; "PIRATAK", eta honen inguruan lan polit
pila bat egin ondoren Bizargorri eta Kattalin pi-
ratararekin "piraten eguna" ospatu zuten altxor
eta guzti.

3. 4. 5. eta 6. mailakoak zinean izan dira "Irat-
xoen Erregea" ikusten, eta orain Txan magoa-
ren ikuskizuna eta Iñaki Zubeldia idazlearen
bisitaren zain gaude, hauekin momentu onak
Euskaraz gozatzeko!




Kaixo lagunok!!! Oporrak gainean ditugu jada
eta azkenengo hilabete hau indarrez hartzen
dugu **La Salle** Isasin. Hilabete honetan zehar 3.
eta 4. mailakoak igeriketa ikastaroak egiten
egon dira. Beste alde batetik, 2. mailakoak
Arotz-eneara joango dira egun bi pasatzera hi-
labete hontan bertako ingurua ezagutzera. 3.zi-
klokoak Txuri Urdinera joango dira patinatzer-
a hilaren 28an. Bukatzeko, hilabete honen buka-
eran eta oporrak ezin hobeto hasteko martxo-
aren 26-tik 30-ra EUSKAL ASTEA ospatuko dugu
gure ikastetxean. Egun horietan txotxongiloak,
idazleen bisita, futbol jokalarien bisita, Xaibor
DJ-arekin dantzaldia, buruhandiak... eta, nola
ez, gure lagun MATTIN KUKUAREN etorrera!!!
Ondo pasa oporrak!





DENBORAPASAK

*Aurkitu bidea, pinguinok bere arrotza aurkitzeko





ALKONDARA
GALTZAK
GONA
ANORAK
JAKA
JERTSEA
BEROKI
KAMISETA
BLUSA

E	A	N	O	R	A	K	A	N
B	L	U	S	A	Z	A	B	K
Y	K	R	T	U	L	M	E	J
O	O	G	J	H	B	I	R	E
C	N	X	N	H	N	S	O	R
U	D	R	T	T	D	E	K	T
J	A	K	A	G	U	T	I	S
S	R	H	B	N	J	A	O	E
G	A	L	T	Z	A	K	G	A

Andrea Rodríguez


5 desberdintasun



Endika. Cebrian

GURUTZEGRAMA

1. Eiffel dorrea dago
2. Gu bizi gara
3. Hotz asko egiten du
4. Gure ondoan dago
5. Big-Ben dorrea dago



EUROPAKO LURRALDEAK

TXISTEAK

Andereñoak esaten du:

-Biharko bost esaldiko idazlana egin behar duzue.

Orduan, Jaimito etxera doa, anaiak borrokan ikusten ditu eta esaten die:

-Juan, esan esaldi bat!

-Orain ezin dut -eta Jaimitok apuntatzen du.

-Eta zu, Markos, esan esaldi bat.

-Ez zait inporta zure idazlana! -eta apuntatzen du.

Gero, amari galdetzen dio:

-Ama, esan esaldi bat.

-Ipini nahi duzuna -eta apuntatzen du.

Geroxeago, aitari galdetzen dio:

-Aita, esan esaldi bat.

-Ez dut ibili nahi -eta apuntatzen du.

Azkenean, bere arrebarengana doa eta arrebak esaten dio:

-Eraman bizikletan, eramán bizikletan -eta apuntatzen du.

Hurrengo egunean andereñoak esaten dio:

-Tira, Jaimito, hasi...

-Orain ezin dut.

-Jaimito, denbora galtzen ari zara.

-Ez zait inporta zure idazlana!

-Nota txarra ipiniko dizut!

-Ipini nahi duzuna.

-Zuzendaritzara joango zara!

-Ez dut nahi ibili.

-Belarritik eramango zaitut.

-Eraman bizikletan, eramán bizikletan.

MIGUEL ARGOTE



Nor da Txinako azkarrena?

TXIUN.

Lepekoek zergatik eramaten dute bainuontzia auto gainean?

Sirena eramateko.

Zergatik eramaten dute hezurra ahoan txakurrek?

Ez dutelako poltsikorik.

IRATI LASA

Irakasleak Jaimitori:

-Jaimito, zenbat hezur dauzka zure gorputzak?

-208, jauna.

-Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur dauzkala giza-gorputzak?

-Bai, baina gaur oliba hezur bat irentsi dut.

GORKA AYORA





Mutiko bat sofan etzanda zegoen, hankak zabalik, telebista ikusten eta, bapatean, telefonoak jo zuen.

-Kaixo seme -esan zion aitak telefonoz-. Non da ama?

-Lorategian, aitzurrean.

-Aizo, seme, ama ez da jada hain gazte eta indartsua. Lagundu zuk!

-Ezin dut, beste aitzurra amama dauka eta biak ari dira.

Andereñoak Jaimitori:

-Zenbat da 2x1?

-Eskaintza!

JONE GALLEGO

Zein da pailazo baten kolmoa?
Koloreetako puzkarrak botatzea.

Auto-eskolako irakasleak gidari-karneta atera nahi duen ikasleari galdetzen dio:

-Zer esan nahi du haur bi kartera banarekin agertzen diren hiruki formako seinaleak?

-Eskolatik irten direla.

-Irtten, irttten... sartu ere sar zintezkeen, ez?

-Ez, jauna! Haurrak korrika doaz.

ANDER ARRIETA



Musika duten eskuak

Ez dute magiarik egiten, baina gerturaten dira. Atzamarrak mugituz melodia gozoak egiten dituzte, doinu zorgarriak entzun daitezke euren eskuen mugimendu txiki batekin. Andoainen ederki dakite hori, pianojole gazteen lehiaketan urrezko domina lortu baitzuten.

Jon Azkune eta Jorge Lahidalga lagunak dira, eta adiskidetasun hori pianoa jotzerako orduan erakusten dute. 2000. urtean jaiotako mutilak, pianoa jotzeko predestinatuta zeuden, izan ere, euren amak ere pianojoleak dira. "Pentsatzen dut eurek guk pianoa jotzea nahi zutela, baina guk gustokoa dugulako egiten dugu", aitortzen du Jorgek.

18 urtetik beherako 887 pianojolek jar-



dun zuten Andoaingo Pianojole Gazteen Lehiaketan, tartean Eibartik joandako 47 gaztek. Lehiatu ziren eibartarrak Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako, Musikum akademiako eta Isabel Laspiurren ikasleak izan ziren, eta azken honekin klaseak hartzen dituzten Jorge Lahidalga (12 urte) eta





Jon Azkune (11 urte) urrezko dominarekin itzuli ziren etxera. "20 lagunek osatutako txandetan jarduten genuen eta gero dominak zeinek jasoko zuten aukeratu zuten. Guk urrezkoa jaso eta domekako kontzertu berezian aritzeko aukera izan genuen. Han, alkateak eman zigun domina", dio Jonek.

Kideak eta lagunak

Diabelliren sonatina interpretatu zuten eibartarrek Andoaingo zitan. Lau eskura aritzen dira, hau da, biak elkarrekin. Jonek goiko notak egiten ditu eta Jorgek behekoak. Eta nola lortzen dute bien artean sinkronizatzea? "Entrenamenduekin lortzen da hori. Gainera, lagunak gara".

Astean birritan entsaiatzen dute, "baina lehiaketa daukagunean hirutan batzen gara", dio Jorgek. Biek dute pianoa etxean, "baina nola foballean entrenatu ostean aritzen garenez pianoarekin, Jonen etxera joaten gara entsaiatzera".

Orain kurtso amaierako kontzertua dute helburu. "Coliseoan arituko gara, biak elkarrekin".







Lore koloretsua

Gauzak zaborrontzira bota baino lehen, pentsa zer egin dezakezun material horrekin. Jarraian, lore koloretsuak egiteko pausoak emango dizkizuegu.



MATERIALA:

- Izozkien makiltxoak.
- Tartaletak egiteko paperezko moldeak.
- Paper edo kartulina berdea.
- Guraizeak.
- Kola.
- Margoak.
- Etxean erreziklatzeko aurki ditzakegun materialak: botoiak, kotoia, koloreetako paletxoak, egunkarietako paperak, lentejuelak...



OSAGIAK:

- 1-Izozkien makiltxoak margo berdearekin (edo nahi duzun kolorearekin) margotu.
- 2-Tartaleten paperak ondo garbitu eta margotu kolore ezberdinekin.
- 3-Makiltxoak eta paperak lehortuta daudenean, loreak osatu makiltxoak zurtoin eta tartaleten paperak petalo bezala erabiliz. Zatiak kolarekin itsatsi.
- 4-Kola lehortzen denean, kartulina berdearekin hostoak moztu eta itsatsi makiletan.
- 5-Petaloak dekoratuko ditugu. Zure imaginazioa aska dezakezu eta tartaleta paperetan gustuko dituzun materialak itsatsi ditzakezu.
- 6-Lorearen erdigunean egiteko, botoi koloretsua itsatsi dezakezu.

ARANTZADUN SENARRA

OUrrutiko paraje batean istorio harrigarri hau kontatu zidaten aspaldi. Entzun ondo. Herrialde hartan bakar-bakarrik bizi ziren senar-emazteak haur bat ekartzeko irrikitan zeuden edo, besterik ezean, arkumetxo bat edo katu bat, edo triku bat. Bakardadea oso gogorra egiten zitzaien. Aizue, ba... emazteak trikua aipatu eta haur batez erditu beharrean, triku batez erditu zen.

Urte batzuk igaro ziren eta trikua artzain hasi zen. Kirikinoa ardi zain! Egundo horrelakorik! Tira... Ba ardi zain zegoen batean erregea aurkitu zuen mendian galduta; negarrez hasteko puntuan zegoen, nora jo etzekiela. Kirikinoak inguru hura ondo baino hobeto ezagutzen zuen eta gaztelurako bidea erakutsi zion. Erregeak bere burua arriskutik kanpo ikusita, mesedea eskertu nahi izan zion nola edo hala. Denetik eskeini zion: zilarra, urrea, lurralde zabalak... Baina trikuak ez zuen aberastu nahi:


-Ez, eskerrik asko. Zure alabarekin ezkontzea, horixe nahi dut.

Erregearen alaba seko jota geratu zen. Triku batekin eskondu! Eskontza egunean negarrez hasi zen eta negarraren negarraz soineko osoa buzti-buzti egin zuen.


-Ez larritu maitea -esan zion trikuak-. Badago egoera hau konpontzeko modu bat. Heldu ezpata honi eta sartu niri paparrean.

Emazteari astakeria iruditu zitzaion, baina triku itxurako senarrak temati jarraitzen zuenez, zazta! Bihotzerainoko zuloa egin zion ezpataz.

Bapatean, trikua gizon bihurtu zen, gizon eder, eta denak pozik; senar-emazteak, erregea... den-denak.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



OSAGAIAK:

- Hamburgesak jateko ogia (edo edozein ogi borobil).
- Urdaiazpiko egosia.
- Gazta.
- Cherry tomatea.
- Kalabazina.
- Olibak.
- Azenarioa.
- Maionesa, igurzteko gazta, ketchupu edo mostaza.

Ogitarteko bat egiten eta jaten ondo pasatzeko errezeta duzue honakoa. Jatea ere dibertigarria izan daitekeelako!

PAUSOAK:

- 1-Ogia zati bitan banatu eta nahi duzunarekin igurtzi: maionesa, igurzteko gazta, ketchupu edo mostaza.
- 2-Urdaiazpiko egosiaren xerra bi sartu barruan eta horietariko bat tolestu ezazu mingainaren itxura hartzeko. Ogiaren kanpoaldean laga.
- 3-Begien txanda. Kalabazinarekin egingo ditugu. Itsasteko, igurzteko gazta erabiliko dugu.
- 4-Errealistagoa geratzeko, oliba zatitxo bi erantsiko dizkiogu.
- 5-Haginak gazta karratutxo birekin egingo ditugu.
- 6-Sudurra cherry tomate erdia izango da (igurzteko gaztarekin hobeto itsatsiko duzu).
- 7-Azken ukitu zoroa emango diogu orain: ilea. Azenario barratxoekin egin dezakegu. Ogian itsatsi... eta ogitarteko dibertigarria an ahal izango duzu!



ogitarteko

dibertigarria

INTERNETEN...



www.zurrumurruka.com

Nori ez zaio gustatzen momentu ona pasatu eta barre egitea? Bada Zurrumurru antzerki taldearekin seguru hori ez zaizula faltako. Puy, Nerea eta Iratik osatzen dute taldea. Abtzerki munduan urteak daramatza hirukotea, eta adar desberdinetatik badatoz ere, Zurrumurruk guztiak uztartzen ditu. Webgunean euren berri izateko aukera luzatzen da eta, besteak beste, antzezlanak, argazkiak eta saioen agenda kontsultatu daiteke bertan.

www.kokorikoko.com

Dada Company-k, umeentzako liburu elkargileen argitaletxeak, Kokoriko ipuina jarri du salgai. Yago Juez ilustratzailearen laguntzaz sortutako liburu hau iPhone, iPad edota iPod Touch-rako garatua izan da eta Apple Store-an aurki daiteke. Kokorikokok, animalien izenak ikasteko liburu berritzaile honek, gurasoak umeekin aisialdi alai eta goxo bat igarotzea du helburu. Ipuin hau animalien eta hauen inguruan dauden elementuen izenak eta oinarritzko kontzeptuak euskaraz barneratzeko sortua izan da.



ARIES

Ez duzu asko itxaron behar egunak lasai, ardurarik gabe eta jolasean pasatzeko. Oporrak motzak egingo zaikizu.

TAURUS

Notak jasotzeko beldurra izango duzu, baina ez zaitez kezkatu, hilabete hauetan egindako lan gogorak emaitza onak emango dizkizu-eta.

GEMINIS

Ederki gogoratzen duzu iaz zeinen ongi pasatu zenuen Aste Santuan, baina aurten are hobea goigorako dituzu jaiegunak.

CANCER

Gogo handiz hartuko duzu oporraldia, azken aldian nahiko nekatuta ibili zarelako. Pilak kargatu eta sasoiaren bueltatuko zara azken txanpari aurre egiteko.

LEO

Badaukazu planik Aste santurako? Lasai, ez zaizkizu eskaintzak faltako-eta. Gauza asko egiteko aukera izango duzu, denak dibertigarriak.

VIRGO

Zer egingo duzu aste bitan bere begiak ikusi barik? Aguantatuko duzu? Bere argazkiei begira pasako dituzu egunak.

LIBRA

Zerbait berezia gertatuko zaizu Aste Santuan? Oporretatik bueltan oraindik pentsatzen jarraituko duzu gertatutakoan.

SCORPIUS

Pena da ez izatea udako oporrak, ezta? Beno, ez kezatu, 15 egunetan ondo pasatzeko aukera izango duzu. Udarako itxaron ezazu pixka bat.

SAGITARIUS

Gauza asko dituzu buruan, plan ugari, baina oporretan ezingo dituzu guzti horiek bete. Hala ere, egindakoa gogo handiz egingo duzu.

CAPRICORNIUS

Ez duzu Aste Santu txarra pasatuko, baina ez zoragarria izango ere. Beste barik, atsedean egunak, lasaik, lo asko egiteko aproposak.

ACUARIUS

Gauzak asko aldatuko dira oporrak hasten duzuetik amaitu arte. Zer gertatuko den erdian? Ikusiko duzu.

PISCIS

Imaginatzen duzu oporrak oihanean pasatzea? Oraingoan ez zara oihanera joango, baina Aste Santuan biziko duzunak horren antza izango du.

Nagusixen eta umien artian
desberdintasun haundixak
izaten dirala pentsatzen dogu,
baiña zer gertauko zan galdera
bardiña egitten badetsagu
nagusixari eta umiari?
Horrenbesteko aldia
egongo ei da?

Zertan jolasteko ohitturia dakazu/zeneukan?

KATHERIN LOOR, 9 URTE

'Emotera' jolasten dogu eskolan. Balo batekin jolas-
ten da eta baloia dakana ezin da mobidu. Holan,
bestiori emoten saiatu bihar da. Asko gustatzen jata.

ALBA LOURIDO, 9 URTE

Wii-ra eta 'Froga, egixa edo erronka'-ra jolasten dot.
Gurasuekin jolastia gustatzen jata. Lagunekin goma
eta hoolahopakin jolasten dot.

GINA REYES, 27 URTE

'Yes mi estrella'-ra jolasten genduan. Botillen ta-
poiak bueltia emonda zegauzen lurrian, bata bestiak
arrapatzen saiatu bihar zan eta bestiak tapoieri
bueltia emoten. 'Yes mi estrella' esaten zan orduan.

ANA COMINO, 37 URTE

Kromuekin, sokasaltuan, bizikletiarekin, gomare-
kin... jolasten genduan kalia. Lagunekin iniltzen
nintzan, etxetik hurbil, baiña gure kontura.





DOTTEK OSO GORA HELDU NAHI DU

Erregalitz taldea lau neskek osatzen dute. Leo, Maya, Dotte eta Fanny dute izena eta lgun minak dira. Oso ondo pasatzen dute elkarrekin, baina batzuetan egoera zailei aurre egin behar izaten diete. Hala ere, onik aterako dira beti beren adoreari eta adimenari esker. Erregalitztarrek ez dute ulertzen zer zaila den mutil batekin ateratzea. Eta, era berean, ez dakite zer gaitza izan daitekeen ohe elastikoko jauzi-lehiaketa batean parte-hartzea.



TXORI TXOROA

Okil baten istorioa kontatzen zaigu ipuin honetan. Moko-okor jaiotzen delarik, ez du balio zurgintzarako, eta familiak arbuatu egiten du. Bere akatsari etekina ateratzen dio, ordea, eskulturagile bihurturik. Hori ez dute ontzat ematen familian, eta etxea utzi beharrean gertatuko da. Bidaia luze bati ekingo dio orduan, leku berriak eta aukera berriak aurkituko dituelarik.



NIRE AITA IKUSTEZINA DA

Elenek hamaika urte ditu, biolina jotzen duen nobio makarra bat, eta neba jaioberri bat: Xabat. Parkera edo kalera ateratzen direnean, jende guztiak egiten dio kasu niniari, amari, Eleneri... baina inork ez du ikusten aita: ikusezina bihurtu ote da?



JOXE PANPIN, JOSTAILU SALTZAILE FIN

Joxe Panpin jostailu saltzailea da. Eta asko bidaiatzen du. Bidaia bakoitzetik ipuin bat ekartzen du, eta seme-alabei kontatzen die gauean. Era guztietako ipuinak: eroak, alaiak, tristeak... Baina ederak guztiak.



KOMETA BIDAIZALEA




Kometa bidaizalea izenburuaz zazpi ipuin zein baino zein ederrago eskaintzen dizkigu Karlos Santisteban idazleak, gai ezberdinak erabiliz, baina guztiotan haurren munduari berezko zaion irudimena nabarmena delarik. Hain zuzen ere, egileak beti haur izaten jarraitu nahi lukeela aitortzen du eta ipuinon bitartez haurtzarorako itzulbidea aurkitzen du.



DESIO IZENENKO TREN BATEAN

Lagun bi, motxila bana, Inter-rail txartela Europan barrena bidaiatzeko: horra liburu honen abiapuntua. Hamaika abentura, pasadizo eta bitxikeria bizi izango dituzue Iker eta Jonek hiriz hiri, trenetan nahiz gazte-aterpetxeetan, ligatzeko asmoa beti gogoan, Internet gabeko aro batean.

VENDIARA IGOREN...



Alatz C.